

## GOBERNU BATZARRA

2015. 09. 21

**Alkatea:**

**Olatz Peón Ormazabal**

**Zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria  
Nerea Letamendia Belloso  
Jokin Azkue Arrastoa  
Iñigo Alonso Sarasibar**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko irailaren hogeita batean goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

**1.- Aurreko akta onartzea.**

**2.-Topagunea zerbitzuaren kontratazioaren luzapena.**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

**3.-26/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

**Kontuhartzaitzako Teknikaria:**

**Paulino Alonso Eraso**

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko irailaren 14an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Topagunea zerbitzuaren kontratazioaren luzapena.**

Bi mila eta hamabiko irailaren 27an, Maindi Elkarteak asteburuetan Tolosako Topaguneko Aisialdiko Hezkuntza eta Dinamizazio Programa garatzeko kontratua sinatu zuen Tolosako Udalarekin.

Kontratuaren iraupena urte betekoa da kontratua sinatzen den unetik. Alderdi biek adostuz gero, urtez urte luzapena ere egin daiteke, baina beti iraupena lau urtetik gora izan gabe, luzapenak barne.

Kontratuan urteko 63.283,44€-ko prezioa mantentzea erabaki zuen Gobernu Batzordeak. Urtero ordea, baldintza administratiboetan zehazten den moduan, kontraturen prezioa berrikusiko dela dio, hori horrela Hego Euskal Herriko lau probintzietako kontsumo prezioen Indizeari dagokion igoera edo beherapena aplikatuko da, baldin eta kontsignazioa badago.

Udal Gazteri teknikariak MAINDI ELKARTEAK burututako lanaren balorazio positiboa egin du, eta adierazi du kontratuan azaltzen diren irizpide guztiak modu egokian bete direla.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- MAINDI ELKARTEAri kontratua urtebete luzatzea, 2015eko irailaren 27tik, 2016ko irailaren 27ra arte, hau barne.

**BIGARRENA.**- 2.015. urteko aurrekontuak kontutan hartuz, irailetik abendura bitartean kontratuaren prezioa bere horretan mantentzea: hilean 5.273,62€.

**HIRUGARRENA.**- 2016. urtean, aldiz, azpikontrataturiko zerbitzuei dagokien irizpideen arabera jokatzeko.

**LAUGARRENA.**- Luzapenaren kontratua gauzatzea agiri alkateak sinatuz.

**BOSGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

### **3- 26/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **26/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **223.599,82** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA**.- 26/2015 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**